

## 10. EUROPAKO ANTZERKIAREN BERRIKUNTZA

XIX. mendearen bigarren erdian Europan antzerki errealista eta naturalista hasi zen, antzerki modernoaren hasiera adierazten duen joera. Antzerki erromantikoaren erretorikaren aurrez aurre, literatura dramatiko errealista-naturalistak gai artistikotzat jotzen du errealitatea eta, salaketa soziala bilatuz, dimentsio ideologikoa eta soziala ematen dio antzerkiari.

Dramaturgo eskandinaviar batzuen lanen argitalpena, lehenengo teatro taldeak sortzea eta eszenako lehen zuzendariak agertzea aldi berean gertatu ziren, eta hori guztiari esker antzerkigintza goitik behera aldatzen hasi zen.

### Teatro errealistatik naturalistara

Teatroaren generoa izan zen modernitaterako biderako bilakaerarik geldiena egin zuena, ikuskizuna eta literatur lana baitzen aldi berean; izan ere, emanaldietarako dirua jartzen duten enpresaburuek eta ikusleek, orokorrean, ez dituzte aldaketak eta esperimentuak gehiegi atsegin.

XIX. mendearen bigarren zatian **drama errealista** zen nagusi. Antzerki mota honek teatro erromantikoan horren ohikoak ziren exotismoa eta historizismoa alde batera uztea lortu zuen, girotze garaikidea ezartzeko. Baina aipatu beharrekoa da «errealismo» hori oso mugatua zela, moralizatzea helburu zuten antzezlanak baitziren. Ohiko mundu burgesa erakusten zuten, pertsonengan edo bizitzaren benetako arazoetan sakondu gabe.

**Teatro naturalista** saiatu zen errealitatea bere horretan islatzen, horretarako gizakiaren jokabideak eta arazo pertsonal eta sozialak aztertuz, euren intimitatean zeuden pertsonaien erretratuen bidez. Ezaugarri horiei esker, zoritxarra, senik gaiztoenak eta pobrezia giroak eszenaratu ziren. Horrek sekulako eskandalua sortu zuen garai hartako gizartean.

### Dramaturgo eskandinaviarrak

**Henrik Ibsen** (1828-1906), literatura norvegiarraren gailurra izateaz gain, Europa osoko literatura dramatikoaren garapenean eragin erabakiorra izan zuen. Autore gisa eta antzerki-zuzendari gisa aritu zen.

Norberaren betetasuna izan ohi da haren antzezlanetako gai garrantzizkoenetakoa. Horretarako, gizakiaren askatasuna mugatzen duten arauen kontra borrokatzen dira bere pertsonaiak, batzuetan arau moralei aurka eginez.

Henrik Ibsen antzerkigile norvegiarrak bere lanetan aurriritziak eta zurikeria, zailtasun ekonomikoak, eta zintzotasuna eta giza harremanen erantzukizunak landu zituen. Obren sakontasun psikologikoa gora-behera, protagonistak pertsona arruntak ziren, hizkuntza natural eta erraza erabiltzen zutenak, hizkera apalaren modukoa.

Ibsenen obra funtsezko hiru alditan banatzen da:



- Lehen, Danimarkatik bereizi ondoren, Norvegiaren berreskuratze nazional, politiko eta kulturalarekiko mugimenduari hertsiki loturik dago. Aldi horretan artean drama erromantikoak idatzi zituen, gai historikoak eta folklorikoak landuz. Garai horretako obrarik esanguratsuenak hauek izan ziren: *Brand* (1866) eta, batez ere, *Peer Gynt* (1867).

- Bigarren aldian, Ibsenek forma errealisten eta naturalisten eragina jaso zuen, eta oinarri horren gainean eraiki zuen bere antzerkigintzaren gune nagusia: *Gizartearen euskarriak* (1877), *Panpinen etxea* (1879), *Espektroak* (1881), *Hedda Gabler* (1890), *Herriaren etsaia* (1882): ustelduta zegoen gizarte baten aurka sendagile ondradu batek egin zuen borroka kontatzen du; *Basa ahatea* (1884). **Panpinen etxea** da, ezbairik gabe, ezagunena.





Askok feminismoaren aitzindari jotzen dute Ibsen, eta horren adibide da aipatutako antzezlanean kontatzen zaiguna: emazte batek gaixo du senarra eta hura sendatzeko mailegu bat eskatzen du gizonak jakin gabe. Urteetan lan egin beharko du zorra kitatzeko. Alabaina, egun batean bere senarra banku bateko zuzendari izendatzen dute eta bertan ari da lanean, halabeharrez, mailegua eman zion gizona. Azken hau xantaia egiten hasten zaio eta senarrak, guztia jakitzen duenean, emaztearen jokabidea goraipatu beharrean errieta egiten dio. Emazteak ezin du senarraren esker txarra jasan eta panpina gisara tratatua izatea onartzen ez duenez, senarra eta seme-alabak abandonatuz etxetik alde egiten du.

- o Azkenik, sinbolismoaren eragin nabarmena zuten obra batzuk sortu zituen Ibsenek: *Solness obra-maisua* (1892), *John Gabriel Borkman* (1896) eta *Gu hildakook itzartzean* (1899).

**August Strinberg** (1849-1912) suediarren bizitza oso aldakorra izan zen; haurtzaroan behartsua izan zen eta dementzia uneak pairatu zituen. Oso kontalari ona izan zen eta bere herrialdera naturalismoa eraman zuen *Egongela gorria* (1879) lanarekin.

Antzezlanak laburrak eta mamitsuak ziren eta izaera ezberdinetako pertsonen (gehienetan emakume eta gizonezkoenak) arteko aurkakotasun ankerrak landu zituen. Gizakiaren krudelkeria eta inposaketa sozialen boterea primeran azaldu zituen. Ondorengo hauek nabarmendu behar dira: *Kamaradak* (1886), *Aita* (1887) eta, batik bat, *Julia andereñoa* (1888). Azken hau da bere lanik ezagunenetakoa, eta ezkonduetako emakume batek bere zerbitzariarekin dituen harreman gatazkatsuak ditu kontagai. Amaieran, emakumeak bere buruaz beste egiten du.

#### «Teatro askeak»

Estilo dramatiko berri hau talde txiki independente batzuk zabaldu zuten, enpresariak eta ikusle burgesak gaitzetsi egiten baitzuten. Talde horiek antzele amateurrek osatzen zituzten eta ikusle talde txiki eta finen aurrean aurkezten zituzten euren lanak. Zuzendari eszeniko bat izan ohi zuten eta gero eta garrantzi handiagoa hasi zen hartzen eginkizun hori.

Lehenengoa eta guztietan entzutetsuena Pariseko Teatro Askea (1887-1894) izan zen; **André Antoine**ek sortu zuen eta Ibsenen, Strindbergen eta Tolstoiren lanak antzeztu zituzten. Berlinen **G. Brahme**ek ekin zion lan berari (1891-1892) eta **J. Greinek** «Londreseko Teatro Independentea» sortu zuen (1891-1892).

Moskuko Arte Teatroaren (1898-1917) kasua azpimarragarria da. Gehien irauin eta eraginik handiena zuena izan zen, **K. Stanislavski** (1863-1938) zuzendariaren antzeppen teoriei esker.

### Beste dramaturgo berritzaile batzuk

**Anton Chejov** errusiarraren lana oso lotua dago Moskuko Arte Teatroarekin, bere antzezlari nagusiak estreinatuta baitzituzten teatro horretan. Horrez gain, kontakizun laburren maisua ere izan zen.

Bere antzerkiak ia ez zuen ekintzarik eta iradokitzailea izan zela esan daiteke. Elkarrizketaren bidez izaera ezberdinen azterketa zorrotza egiten zuen eta giro ezberdinak sortu zituen. Gizakiari eta gizarteari buruz ikuspegi ezkorra zuen arren, bere ironiak eta umore senak leundu egiten zuen.

Lanik garrantzitsuenak hauek dira: *Kaioa* (1895), *Hiru ahizpa* (1900) eta *Gereziondoen lorategia* (1903).

*Gereziondoen lorategia* antzezlariaren eszena.





**George Bernard Shaw** (1856-1950) irlandarra, 1925ean Nobel sariduna, kazetari polemikoa eta kritikaria izan zen antzerkigintzan lan egin aurretik. Kutsu intelektual handia zuten bere lanek ideologia arazoak eztabaidatzeko edo gizartearen ohiturak kritikatzeko idatzi zituen.

Ondorengo ezaugarriak nabarmendu behar dira bere lanean: umore sena, pertsonaien karakterizazio argia eta elkarrizketen bizitasuna. Bere lanik ezagunenak hauek izan ziren: *Warren anderearen lanbidea* (1894), prostituzioa hizpide zuena; *Puritanoentzako hiru obra* (1901), *Gizona eta supergizona* (1903) eta, batez ere, *Pygmalion* (1912), bere lanik ezagunena eta garai hartako gizarte ingelesaren klasismoa kritikatzeko duena.

## XX. Mendearen bigarren erdialdea. Absurduaren Teatroa eta Krudelkeriaren Teatroa

*1945aren ondoren ere genero dramatikoak berriztatzen jarraitu dute autoreek. Azken gerrak, XX. mendeko zoritxarreko historiako beste etapa bat izan denak, europarrek mende erdialdean sentitzen dituzten etsipena eta larritasuna adierazteko teatro forma berriak sortzeko beharra suspertu du.*

krudelkeriaren teatroa, gerraren teatroa, absurduaren teatroa, krudelkeriaren teatroa

### Teatro existenzialista

**Existenzialismoa** izan zen zentzurik ez duen mundu batean bizitzeak eragiten duen sentimenduak sortu duen berehalako ondorioa. Sentipen horrek Bigarren Mundu Gerraren ondoren larritasuna eragin du gizartearen. Horren guztiaren ondorioak honako pentsamendu hauek izan dira: edozein giza ekintza alferrikakoa eta zentzugabea da, baita sakrifizioa eta sufrimendua ere.

**Jean-Paul Sartre** (1905-1980) filosofo eta eleberrigilea izan zen, baina antzerki lan ugari idatzi zituen horrez gain: *Atea itxita* (1945): elkarri gorrotoa dioten hiru pertsonaia elkarri min ematera zigortuta daude, infernua, hain zuzen ere, besteekin bizitzea dela konturatzeko. *Esku zikinak* (1947): helburuen eta bitartekoen arteko dilema morala aurkezten du idazleak, eta testuingurua alderdi politiko ezkertiar batean kokatu zuen.



**Albert Camus** (1913-1960) eleberrigile eta sai idazleak genero dramatikoak ere landu zuen: *Calígula* (1938): enperadore erromatarra, bere itxurazko erokeriaren ondoren, bizitza zein zentzugabea den ohartzen da. Gainerakoek, ordea, nahiago dute engainatuta bizi eta enperadorea hiltzen dute. *Justuak* (1950): terrorista errusiar batzuek baliabide ankerren bidez kotasuna eztabaidatzen dute, nahiz eta arrazoi onengatik izan.

### Absurduaren teatroa

Existenzialistek bizitzaren zentzugabekeria estilo dramatiko tradizionalaren eta hizkuntza logikoaren bidez azaltzen dute. Hurrengo urratsa absurduaren eragina formara zabaltzea izango da, elkarrizketak, agertokia eta arropa, besteak beste, zentzugabeak eginez. Ekintza ere azalpenik ez duten egoeretan eta erantzunik ez duten galderetan oinarrituko da.

Mugimendu honetan gehien gailendu diren dramaturgoak frantsesez idazten duten bi atzerritar izan dira:



**Samuel Beckett** (1906-1989). Irlandarra. *Godoten zain* (1953) liburua idatzi zuen. Lan honetan bi protagonista azaltzen dira, zentzurik ez duen elkarrizketa amaigabea, ezer ez dakigun beste norbaiten zain, alferrik. Beste lan batzuetan pertsonaiak zakarrontzietan sartuta agertzen dira (*Partidaren amaia*, 1957) edo hondarretan lurperatuta (*Oh, bai egun ederrak!*, 1961).



**Eugene Ionesco** (1912-1994). Errumaniarra. *Abeslari burusoila* (1950) lanarekin lortu zuen arrakasta. Hizkuntza suntsitzen du idazleak liburu honetan, inkomunikaziorako tresna bihurtuta. Fartsa zentzugabea da. *Aulkiak*(1951) lanean adineko bikote baten inguruan aulkiak pilatzen dira, zergatia azaldu gabe. *Riniceront-en* (1958) gizabanakoak errinozeronte bihurtzen dira pixkanaka, gizatasuna galdu duten hiritar gizarte berrien ikur gisa.

**Eugene Ionescok** antzerki berri bat sortu zuen. Hizkuntzaren eta egoeren komikotasuna pertsonaien (minusbaliatuak eta ergelak) bizitzaren zorigaitzarekin batu zuen.



### Krudelkeriaren teatroa

**Antonin Artaud** (1896-1948) frantziarrak lan handia egin zuen gerra aurretik; surrealistekin lan egin zuen, eta *Les Cenci* (1935) lana estreinatu zuen. Teatrogintzan arrakastarik handiena *Antzerkia eta bere bikia* (1938) testu teorikoarekin lortu zuen. Lan horrek arrakasta eta zabalkuntza hirurogeita hamargarren hamarkadatik aurrera lortu zuen, korronte abangoardistentzat nahitaezko erreferentzia bihurtzen delarik.

**Krudelkeriaren teatroaren** helburua indar naturalak eta euren barnealdea ere menperatzen dituen indarkeriaren garrantzia ikusleari jakinaraztea da. Horretarako, Artaudek keinuetan, dantzan eta mugimenduetan oinarrituta zegoen antzerkia proposatzen du, hitzei eta ekintzei garrantzia kenduz. Irrazionaltasuna eta magian oinarrituta, ikuslea trantzean sartzea lortu nahi du, ikuslearen inkontzientea askatzeko, irudi fisiko harrigarrietan murgilduta. Ekialdeko teatro erritualean inspiratzen da idazlea.

Teoria horiekin, testuak ia bere balio osoa galtzen du, eta muntaia eta antzezpenaren oinarritzko irudia zuzendari eszenikoa bihurtzen da, dramaturgoaren kalterako.

### Teatro osoa

Teoria horien guztien ondorioz talde independenteak sortzen dira. Euren helburua "teatro osoa" egitea da, **taldeko muntaia** bidez. Lan horietako batzuetan testua aitzakia soila baino ez da.

Antzerkia beste ikuskizun mota batzuekin nahasten da (kantua, dantza, zinema, musika eta abar). Ohiko agertokiak alde batera utzi eta berriekin proba egiten dute, **ikusleen parte hartzea** ikuskizunean sustatzeko asmoz. Sekulako esanahia duten oinarritzko elementuak bihurtzen dira argia, arropa edo eszenografia.


### Arratsalde bat

Lurrean zetzala aurkitu zuten. Inork ez zuen haren falta sumatu. Inor ez zebilkion bila. Andre zahar batek aurkitu zuen. Lausoki adierazteko. Hain aspaldi gertatu zen. Andrea nora gabe zihoan basa-loreetara. Horiak soilik. Horrelakoentzat baino begirik ez zeukala egin zuen tupust han zetzanarekin. Ahuspez eta besoak zabalik zetzan. Soingaineko bat zeraman jantzita urtaroa gorabehera. Gorputzak ezkutaturik botoi ilara luze batek lotzen zuen goitik behera. Itxura eta neurri guztietako botoiak. Zutik jantzita haren hegalek lurra eskobatzen zuten. Badirudi hori bat datorrela. Buruaren ondoan kapela bat zetzan lur gainean zehar. Haren hegalek eta koroaren gainera aldi berean. Gizona nabarmendu gabe zetzan gaineko berdexkan. Urrutiko begirada bilatzaile bat erakartzeko buru zuria besterik ez zegoen. Andrea ikusita al zuen inon lehenago? Inon zutik lehenago? Ez hain bizkor. Andrea guztiz beltzez jantzita. Gona beltz luzearen barrena herrestan belarretan. Egunaren amaiera zen. Orain sortalderantz mugituz gero itzalak aurrea hartuko lioke. Itzal luze beltz bat. Arkume garaia zen. Baina ez zegoen arkumerik. Ezin zuen bakar bat ere ikusi. Hirugarren lagun bat handik igaroko balitz, haienak lirateke ikusiko lituzkeen gorputz bakarrak. Aurrena andre zaharrarena zutik. Hurrena haren ondora hurbildutakoan lurrean etzanikoarena. Badirudi hori bat datorrela. Zelai hutsak. Andre zaharra guztiz beltzez jantzita geldi-geldirik. Gorputza geldi-geldirik lurrean. Horia beso beltzaren muturrean. Ile zuria belarretan. Sortaldea gauean hondoratzen. Ez hain bizkor. Eguraldia. Zerua hodeitsu egun osoan ilundu arte. Sartalde-ipar-sartaldean ostertzetik hurbil jadanik eguzkia agertu zen azkenik. Euria? Tanta batzuk aukeran. Tanta batzuk goizean aukeran. Orainaldian amaitzeko. Hain aspaldi gertatu zen. Egun osoan etxe barruan kaiolatuta eguzkiarekin batera kanpora irten da andrea. Agudo dabil zelaietara heltzeko. Bidean inor ez ikusi izanaz harriturik nora gabe doa sutsu basa-



loreetara. Sutsu gauaren berehalakotasuna ikusita. Harriturik ohartu da arkumerik ez dagoela kopuru handitan hemen urtaro honetan. Gazte alarguntzean bereganaturiko beltza janzen du. Hilobia lore berriz apaintzeko doa nora gabe senarrak maite izan zituen loreen bila. Baina beso beltzaren muturrean horirako ez da alerik egongo. Beraz albait gutxien baino ez dago. Hori da berarentzat hirugarren ustekabea kanpora irten zenetik. Ugari hazten baitira hemen urtaro honetan. Bere lagun zaharrak bere itzalak gogait eragiten dio. Hainbeste non biratu egiten baita eguzkiari buruz. Besoa albora luzatzen du bere bidetik bazter den edozein lore hartzeko. Irrikan dago eguzki-sartzea amaitu eta joateko nora gabe berriro aske oskorri-oste luzean. Atsekabea areagotzeko bere gona beltz luzearen firfira ezaguna belarretan. Begiak erdi itxita mugitzen da argi itsugarrirantz erakarrita bezala. Baliteke bere buruari esatea gauza bitxi gehiegi direla martxoko edo apirileko arratsalde bakar baterako. Kanpoan inor ez. Arkume bakar bat ere ez. Nekez lorerik. Itzala eta firfira gogaikarri. Eta horrez gain izu-laborria bere oina gorputz baten kontra nabaritzean. Halabeharra. Inork ez zuen haren falta sumatu. Inor ez zebilkion bila. Beztiduren beltza eta berdea elkar ukitzen ari orain. Bilduriko lore urrien horia buru zuriaren ondoan. Eguzkiak argituriko aurpegi zaharra. Tableau vivant aukeran. Nola edo hala. Dena isilik aurrerantzean. Andrea mugitu ezin den arte. Eguzkia azkenik desagertu da eta harekin itzal guztiak. Dena itzal hemen. Oskorri-osteko itzaltze motela. Ilargi edo izarrik gabeko gaua. Badirudi hori guztia bat datorrela. Baina horretaz kito.

Samuel Beckett



1. Egizu ipuinaren argumentua labur-labur.
2. Nora doa emakumea?
3. Zeren bila doa eta zertarako?
4. Zelan amaitzen da ipuina?
5. Logikarik badauka ipuin honek? Azaldu ezazu laburki.

